

Eskola Kirol Egokitua Gipuzkoan 2022- 2023 Memoria



“DENOK
BERDINAK,

DENOK
EZBERDINAK”



GUZTIONTZAKO KIROLA



gkef fgda

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

GIPUZKOA KIROLAK



**GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN**

AURKIBIDEA

SARRERA

ESKOLA KIROL EGOKITUA

- HELBURUAK
- PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

Programaren ANTOLAKUNTZA OROKORRA

- ANTOLAKUNTZA ESKUALDEKA

AHOLKULARITZAK

ONDORIOAK

SARRERA

Eskola Kirol Egokituko programa 2006.urtean jarri zen martxan Gipuzkoako zenbait udalerritan, **desgaitasunen bat izateagatik** (desgaitasun fisiko, psikiko, sentsorial edota organikoa) **jarduera fisikoa eta kirola era normalizatuan egiteko aukerarik gabe** aurkitzen ziren gazteen beharrei erantzuneko asmoarekin.

2006.urteaz geroztik, beraz, GKEF eta GFaren arteko elkarlanaren ondorioz, desgaitasuna zuten eskola umeei **EKE** programan parte hartzeko aukera bermatu zitzairen Gipuzkoan zehar, **urtez- urte egonkortu eta GIPUZKOA** eskualde guztietan saretzen joan den errealitate bat bihurtu delarik. Hala ere, zenbait eskualdetan, EKE eskaintzaren inguruko gabeziak somatzen ditugu, **Debabarrena eta Tolosaldean** esaterako, eta hurrengo ikasturteetan, bertako eragileekin elkarlanean aukera berriak planteatzen saiatuko gara.

Eskola Kirol Egokituko programaren bitartez, beraz, 6 urtetik aurrera desgaitasuna duten eskola-umeen, eta 21 urte artean Gela egonkor eta ZIG geletan dauden ikasleen kirol jardura espezifikoak bermatzen dira ikasturtero, norberaren behar eta nahiak kontutan hartuz, kirol- ibilbide ezberdinak asetzen saiatzen garelarik:

- Gorputz- hezkuntzako edukiak ardatz hartuta, Kirol anitzeko hastapen programa bat eskaini nahi zaie desgaitasuna duten gazteei, norberaren beharretara gehien egokitzen den kirol- jardura, taldekatze mota eta egokitutako programazio batekin.
- Klubetako kirol eskoletarako bidean ere laguntzen diegu, kirol- modalitate espezifiko bat landu nahi duten gazte haien kasuan.

2022/23 ikasturte honetan, desgaitasuna duten **125** gazte ingururi eman zaie arreta **EKE** programan, beraz, argi dago **oraindik ere EKE programaren beharra ezinbestekoa dela** inor ez dadin jardura fisiko eta kirolerako aukerarik gabe gelditu **eta kirolean inklusioaren erronka lortzeko** lanean jarraitu beharko dugu, **eskola adineko kirolaren egitura eta antolamenduari ikuspegi inklusibo eta hezitzaileago bat** emanaz.



GKEF FGDA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

GIPUZKOA KIROLAK



**GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN**

Funtsezkoa izango da kirolean inplikaturik gauden estamentu guztiok konpromisoa hartzea pertsonekin eta dituzten beharrekin, eta, beraz, **bazterkeriarik gabeko haur eta gazte guztien parte-hartzea, beraien osasuna eta ongizatearekin.**

Helburu nagusia, beraz, **“Kirol- eta gizarte-ingurunea inklusiboagoa, lagunkoiagoa eta errespetuzkoagoa izan dadin laguntzea da, kirol-jardueraren bidez bizikidetzak sustatuz eta desberdintasunak errespetatuz, eta, horrez gain, haien beharrei erantzun eta parte hartzeko aukerak areagotuz.”**

ESKOLA KIROL EGOKITUA HELBURUAK

Eskola kirola, Gipuzkoako Foru Aldundiak dekretu bidez plazaratzen duen programa da, eskola adinean hasi behar den kirol praktikaren hastapena, haurraren heziketa integralaren osagarri moduan, balore positiboen transmisio moduan eta etorkizuneko kirol praktikaren oinarri bezala ulertzen dena.

Eskola orduetatik kanpo eta eskolaren ardurapean egiten den kirol praktika antolatua eta hezigarria da, eskola-ume guztiek kirola egin, ikasi eta gozatzeko aukera ahalbidetzen duena.

Eskola kirolaren xedeak 3 zutabetan oinarritzen dira:

Heziketa

- Neska-mutilen osotasunezko formakuntza (eta heziketa integrala) sendotu eta aberastu.
- Haurraren garapen psikosoziala landu, gizartean hobeto txertatzea erraztuz.
- Gizartean gehiengoak onartutako balio positiboak sustatu: talde lana, besteak eta arauak onartzea, errespetua, saiatzearen kultura...
- Eskola ordutegitik kanpoko testuinguruetan ere euskara erabiltzeko ohitura sustatu.

Ohitura osasuntsuak

- Aisialdian eta etorkizunean beren borondatez jarduera fisikoa egiten jarraitzeko jarrera bermatu.
- Biharko hiritarren osasun maila eta bizi-kalitatea hobetzen lagundu.

Motrizitatea

- Etorkizunean jarduera mota berrietara egokitu ahal izateko oinarritzko gaitasun orokorrak finkatu, bereziki kualitatiboak: koordinazioa, oreka, lateralitatea...
- Funtsezko kirol trebetasunak garatu, gerora errendimendura bideratzea posible eginaz.

Eskola Kirol Egokitua, aldiz, desgaitasunen bat izateagatik testuinguru natural edota konbentzionaletan aritu ezin eta beraien beharretara egokitutako programa espezifikokoago bat behar duten eskola ume eta gazteentzako programa bat izango da, GFaren aterkipean GKEFk kudeatu izan

duena orain arte Gipuzkoan zehar. Azken

urteotan eta hemendik aurrera, EKE programa zenbait eskualdetan bertako

eskola kirol edota udal egituretan txertatu da edo txertatuko da, GKEFtik kudeatu gabe, tokian- tokiko eragileek kudeatuko dutelarik eta GKEFren aholkularitza izango dute lagungarri prozesuan.

Horrela, Gipuzkoako eskualde guztietan **neska-mutilek eskola adineko kirolean parte hartzeko eskubidea bermatuko dugu denon artean.**

Helburu berdinak jarraituz, beraz, EKE programan talde bakoitzeko gazte taldearen ahalmenak eta gaitasunak baloratuko dira, eta horren arabera, talde bakoitzeko zehaztasuna bilatuko da, programaren **hiru helburu nagusiak mantenduz: sozializazioa, autonomia eta motrizitatea.**

HELBURU Espezifikokoak- EKE

1.-ADIMEN EMOZIONALA eta SENTIMENDUAK: Emozioak identifikatu eta kudeatzen ikastea.

Autoestima, harremanak, gatazka konponketarako estrategiak

2.-OINARRIZKO ABILEZIAK: Oreka, koordinazioa, indarra, abiadura eta malgutasuna lantzea. Igerilekuan flotatu eta teknika egokiarekin igeri egiteko gaitasuna lantzea.

3.-OINARRIZKO PSIKOMOTRIZITATEA: gorputz eskema, espazio- denbora pertzepzioa, lateralitatea eta eta mugimenduen kontrola garatzea, uretan nahiz uretatik kanpo. Gorputzaren jarrera egokia eta higienikoa mantentzen jakitea.

4.-JOKO- JOLASAK: jokoan eta kirolen oinarrizko arauen ezagutza, kooperazio-oposizio egoerak lantzea, pentsamendu estrategikoa jorratzea.

5.-KIROL HASTAPENA: jolas egoeretan kirol ezberdinen hastapenei dagozkien oinarrizko trebetasunak lantzea eta oinarrizko teknika ezagutzea, etorkizun batean hobetu eta sakontzeko aukera izanik.

6.-JARRERA: Talde- joko zein kirolean, norberaren mugak eta nolakotasunak errespetatu, azken emaitza kontuan hartu gabe aktiboki parte hartu eta taldekide, begirale, material nahiz instalakuntzak errespetatu.

7.-AUTONOMIA: Gizartean egokitu eta integratzea eta instalakuntzak zaintzea lagunduko duten portaerak barneratzea. Instalazioetako arriskuak ezagutzea.

8.-BALOREAK: Taldearen garrantzia, errespetua, ondo pasatzea, kidetasuna.

ESKOLA KIROL EGOKITUA PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

Aurrez aipatutako helburuak lortzeko asmoarekin, desgaitasuna duten gazteei ikasturte osorako **jarduera fisiko eta kirol- praktikarako egutegi bat** proposatzen zaie **EKE programaren** barruan, **urria-ekaina bitartean** eta eskola egutegia jarraituz, **astean hainbat kirol- saio egiteko aukera eman nahi zaielarik. Lehorreko edo eta igerilekuko jarduerak** eskaintzen dira, norberak aukera dezakeelarik zein jarduera egin nahi duen.

Jarduera hauek **eskualde bakoitzeko udalerrri konkretuetan** eskaintzen dira, guretzat historikoki erreferentziatzakoak izan direnetan (programa martxan jarri zenetik udal instalakuntzak erabiltzeko aukera izan dugunetan), edo eta talde berriak sortzeko eskaera kopuru nahikoa izan dugun kasuan, igerileku nahiz kirol- guneak erabiltzeko aukera eman zaigunetan.

Aipatzekoa da ikasturte honetan **Elgoibarren aktibatu dugula EKE programa.**

2022/23 ikasturtean hauek izan dira **erreferentziatzako udalerrri eta instalakuntzak:**

ESKUALDEAK	UDALERRIAK	ERABILITAKO INSTALAKUNTZAK	SAIO MOTA	
BIDASOA	Irun	Eguzkitza HLHI	Lehorrekoa- DBH Gazteak	
		Txingudi Ikastola	Lehorrekoa- LH Gazteak	
DONOSTIALDEA	Donosti	Hondartza Kiroldegia Jostaldi Pilotalekua	Igerilekua- LH eta DBH Gazteak Lehorrekoa- LH eta Gazteak	
		Paco Yoldi Kiroldegia	Igerilekua- LH eta DBH Gazteak	
		Intxaurreondo Kiroldegia	Igerilekua- DBH Gazteak	
		Easo Politeknikoa	Lehorrekoa- LH eta DBH Gazteak	
BURUNTZALDEA	Andoain	HEFA Fakultatea	Lehorrekoa- DBH Gazteak	
		Allurralde Kiroldegia	Igerilekua- LH eta DBH Gazteak	
		Urnieta	Egape Ikastola	Lehorrekoa- LH Gazteak
UROLA GARAIA	Hernani	Kiroldegia	Lehorrekoa- LH Gazteak	
		Urretxu	Aldiri Kiroldegia	Lehorrekoa- LH eta DBH Gazteak
GOIERRI	Ordizia	Legazpia	Bikuña Kiroldegia	Igerilekua- LH eta DBH Gazteak
		Majori Kiroldegia	Igerilekua- LH eta DBH Gazteak	

	Beasain	Urdaneta Eskola	Lehorrekua- LH Gazteak
		Lasalle Beasain	Lehorrekua- DBH Gazteak
		Antzizar Kiroldegia	Igerilekua- LH eta DBH Gazteak
TOLOSALDEA	Tolosa	Usabal Kiroldegia	Igerilekua- LH eta DBH Gazteak
DEBABARRENA	Elgoibar	Olaizaga Kiroldegia	Lehorrekua- LH eta DBH Gazteak

Irailean zabaltzen da izen- ematea eta aurreikusten dugun talde- osaketaren arabera, **monitore taldeak osatzen dira** (arreta egokia bermatzeko ratioak kontutan hartuz), monitore **arduraduna eta apoiokoak** bereizten ditugularik. **Monitore arduradunak** taldearen arabera helburu eta programazioa planteatuko ditu, taldearen beharrak aztertu, abendua eta ekainean partehartzaile bakoitzaren balorazio txostenak egin, koordinatzailearekin komunikazio jarraia mantendu...eta horretarako lan- kontratuan astero hainbat prestakuntza ordu izango ditu sartuta. **Apoioko monitorearen** zeregina asteroko saio praktikoak aurrera eramaten laguntzea izango da.

Ikasturte honetan konkretuki, **123 haur eta gazteren** beharrak asetzeko **12 monitore arduradun eta apoioko 14 monitore** kontratatu dira GKEFTik.

Urriean programa martxan jarri aurretik, partehartzaile guztiei **Aisialdi Txartela** tramitatzen zaie eta guraso edo eta tutore guztiei helarazten zaie ikasturterako funtzionamenduaren informazio orokorra, baita beraien seme- alaben/ gazteen **monitoreak** izango direnen inguruko informazio zehatza eta harremanetarako kontaktua.

Behin ikasturtea hasita EKE programan parte- hartzeko interesa duen edozein erabiltzaile berriri, lehenik eta behin **orientazio pertsonalizatua egiten zaio**: gaztearen ezaugarriak, adina eta interesak aztertu ostean, bere beharretara gehien egokitzen den kirol- jarduera eskainiko zaio, bere bizilekutik gertu aktibo dauden taldeei erreparatu ostean eta monitore taldea informatuko da, arreta egokia bermatzeko beharrezkoa balitz, beste monitoreren bat kontratatu beharko litzatekeelarik.

Ikasturtean zehar, **EKE programaren osagarri modura, asteburuetako kirol-topaketak eta aire zabaleko jarduerak proposatzen saiatzen gara eskualdeka**. Esperientzia eta asteburuetarako plan berriak izan ditzaten, jende berria ezagutu dezaten, kirol modalitate ezberdinak praktika ditzaten....

2022/2023 ikasturtean, aurreko urteko konpromezuak mantenduz, bereziki Gipuzkoako **Futbol** Federazioarekin, Gipuzkoako **Esku pilota** Federazioarekin eta Gipuzkoako **Mendizale** Federazioarekin egindako elkarlanaren ondorioz, asteburuetan topaketa ugaritan parte hartzeko aukera izan dute gaztetxoek eta esperientzia oso positiboak izan dira. 2023ko Urtarrila- Ekaina bitartean, gainera, GKEF eta **Zarautz Eskubaloia**ren arteko elkarlanaren ondorioz, 4 topaketa antolatu dira eta gazte ugari animatu dira kirol hau probatzera.



Ikasturte hasieran, RCTSSetik ere **Padela** probatzeko aukera eman zitzaigun eta 2 gazte talde aritu ziren modalitate hau ezagutzen:



UDA programa ere EKeren osagarri hartzen

dugu, oporraldiko goizak lagunartean eta modu aktiboan bizitzeko beharra nabarmena delako ikasturtean zehar gurekin jarduera fisikoa eta kirola egiten duten gazteentzat, baita haien senideen kontziliazio beharrentzat ere.

9.edizioa izango da aurtengoa eta beste behin guztiz arrakastatsua izan dela esatea besterik ez daukagu. Hona hemen iazko eta aurtengo datuak:

UDA 2023
UDALEKU IREKIAK
 DESKANTASUNA DUTEN GAZTEEN ZUZENDUTA
COLONIAS ABIERTAS
 DIRIGIDO A JOVENES CON DISCAPACIDAD

PREZIOAK - PRECIOS

ASTEA SEMANAS	70€	09:30 - 19:30
2 ASTE SEMANAS	120€	
3 ASTE SEMANAS	170€	10 + 21 URTE ARTEKO GAZTEAK
HILABETE OSOA TODO EL MES	215€	Jovenes entre 10 y 21 años

EKAINA JUNIO 26 - 21 UZTAILA JULIO

Izen emateak - inscripciones
FORMULARIOA 943 46 25 14

Epe-muga maitatzen 12a
 Fecha límite 12 de mayo

Participazio lekuak: ARRASTETE AMETLAKALETA, AZPITIA AZKOTIA, DONOSTIA, ERRENTERIA, IZUL HONDARRIBA, INDIA BEASAIN, ZARAUZ.

	UDA 2022	UDA 2023
Erabiltzaile kopurua	81	89+Mindara
Monitore kopurua	30 monitore	31 monitore
	7 boluntaria 2 Praktikak	5 boluntario
Udalerrriak	7	7

Programaren

ANTOLAKUNTZA OROKORRA

2022- 2023 ikasturtean Gipuzkoa guztian **34 talde espezifiko** izan ditugu aktibatuta *Eskola Kirol Egokituko* programaren barruan, **122 erabiltzaileekin**, eta iaz hasitako **inklusio prozesuekin jarraitzeaz gain (EKI)**, aurten pare bat prozesu berritan aholkularitza eman eta arreta egokia bermatzeko monitore espezifikoak bideratu ditugu: Hernaniko **Langile Ikastolan** eta Donostiako **Orix**e ikastolan.

2021-2022 ikasturtean hasitako *EKI*ak ikastetxe hauetan mantendu dira: Irungo *El Pilar*, Zarauzko *Salvatore Mitxelena* eta *Urretxu- Zumarraga*.

26 monitore aritu dira asteroko **EKE** saioak aurrera eramaten eta **4 monitore EKI** saioetan.

Antolakuntza Orokorraren Laburpen Taula

ESKUALDEAK	UDALERRIAK	ERABILTZAILERAK KOPURUA	MONITORE KOPURUA	TALDE KOPURUA	ERABILTZAILE INSTALAKUNTZAK	ASTEROKO SAIO KOPURUA
BIDASOA	Irun Hondarribi	35 11 neska 24 mutil	7	9	Eguzkitza Txingudi Hondartza Jostaldi	10 ARETO 2 IGERILEKU
DONOSTIALDEA	Donosti	40 11 neska 29 mutil	10	10	Paco Yoldi Intxaurren Easo Politeknikoa HEFA	6 ARETO 4 IGERILEKU
BURUNTZALDEA	Andoain Urnieta Hernani	6 1 neska 5 mutil	5	2	Allurralde Egape Hernaniko kiroldegia	3 ARETO 1 IGERILEKU
UROLA GARAIA	Urretxu Legazpia	7 3 neska 4 mutil	3	2	Aldiri Bikuña	2 ARETO 2 IGERILEKU
GOIERRI	Ordizia Beasain	22 3 neska 19 mutil	3	7	Majori Antzizar Lasalle Urdaneta	2 ARETO 5 IGERILEKU
TOLOSALDEA	Tolosa	4 mutil	3	2	Usabal	1 IGERILEKU
DEBABARRENA	Elgoibar	8 1 neska 7 mutil	3	2	Olaizaga	1 ARETO
GUZTIRA	13	122 30 NESKA 92 MUTIL	34	34	18	39 24 Areto 15 Igerileku

ANTOLAKUNTZA Eskualdeka

Jarraian, aurten eskualde bakoitzeko erreferentziarako udalerrietan erabili ditugun instalakuntzak (udal kiroldegietako igerilekuak eta ikastetxeetako gimnasio edo eta psikomotrizitate gelak) eta espazio bakoitzeko taldearen ezaugarriak (partehartzaile eta monitore kopurua, saio mota) laburtuko ditugu:

BIDASOA				
<i>Irun, Eguzkitza</i>	<i>Irun, Txingudi</i>	<i>Irun, Hirubide</i>	<i>Hondarribi, Jostaldi</i>	<i>Hondarribi, Hondartza</i>
2 Talde/ 19 Lagun (6 neska-13 mutil) 5 monitore Aretoko saioak	1 Talde/ 6 Lagun (2 neska-4 mutil) 3 monitore Aretoko saioak	1 Talde/ 4 Lagun (2 neska-2 mutil) 3 monitore Aretoko saioak	2 Talde/ 6 Lagun (2 neska-4 mutil) 2 monitore Aretoko saioak	2 Talde/ 7 Lagun (2 neska-5 mutil) 3 monitore Igerilekuko saioak



DONOSTIALDEA



DONOSTIA

<i>Easo</i>	<i>HEFA</i>	<i>Intxaurreondo</i>	<i>Paco Yoldi</i>
5 Talde/ 20 Lagun (6 neska-14 mutil) 5 monitore Aretoko saioak	1 Talde/ 12 Lagun (6 neska-6 mutil) 2 monitore Aretoko saioak	2 Talde/ 11 Lagun (1 neska-10 mutil) 3 monitore Igerilekuko saioak	2 Talde/ 13 Lagun (5 neska-8 mutil) 5 monitore Igerilekuko saioak



BURUNTZALDEA


Urnieta Egoa

Andoain Allurralde

Hernani Kiroldaia

UROLA- GARAIA

Urretxu, Aldiri 2 Talde/ 7 Lagun (3 neska-4 mutil) 3 monitore Aretoko saioak	(3 mutil) 2 monitore Légarpi, Bikuña 2 Talde/ 6 Lagun (3 neska-3 mutil) 3 monitore Aretoko saioak	(1 neska-3 mutil) 4 monitore Igerilekuko saioak	(2 mutil) 2 monitore Aretoko saioak
--	---	--	--



TOLOSALDEA	<p>Tolosa, Usabal</p> <p>2 Talde/ 4 Lagun (4 mutil) 3 monitore Igerilekuko saioak</p>
-------------------	---



GOIERRI			
ORDIZIA		BEASAIN	
Urdaneta	Majori	Lasalle	Antzizar
<p>1 Talde/ 6 Lagun (1 neska-5 mutil) 3 monitore Aretoko saioak</p>	<p>3 Talde/ 12 Lagun (2 neska- 10 mutil) 3 monitore Igerilekuko saioak</p>	<p>1 Talde/ 5 Lagun (5 mutil) 3 monitore Aretoko saioak</p>	<p>2 Talde/ 6 Lagun (6 mutil) 3 monitore Igerilekuko saioak</p>



DEBABARRENA	Elgoibar, Olaizaga 2 Talde/ 8 Lagun (7 mutil- 1 neska) 3 monitore Aretoko saioak
--------------------	--





GKEF FGDA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

GIPUZKOA KIROLAK



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN

AHOLKULARITZAK

Lehen aipatu bezala, GFAk EKE taldeak eskola-kiroleko eta udaletako tokiko egituretan integratzearen alde egindako apustuari esker, **Gipuzkoako zenbait eskualdetan tokiko kirol-eragileen esku geratu da kudeaketa, eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak aholkularitza eta laguntza eskaintzen die prozesuan, eskualdeko kirol-eragile arduradunei:**

Debagoienan, dagoeneko, EKE taldeak tokiko eragileek kudeatzen dituzte eta GKEFk harremanetan jarraitzen du bertako arduradunekin, aholkularitza ematen. Ikasturte honetan, prestakuntza saio bat eskaini zaie EKE taldeetan hasi diren monitoreei eta Saioa irekia izan da Leintz eskola kiroleko monitore guztientzat. 16 monitore inguru etorri dira formakuntzara.

Urola Kosta Mendebaldean, iaz **Zumaian** aktibatu ziren EKE taldeetako monitore berriekin ere formakuntza saio bat ematen izan gara eta erabiltzaile posibleak izan zitezkeen zenbait familiari arreta eman diegu, azkenik ezin izan dutelarik aurtengoan behintzat jarduerekin hasi.



Urola Erdian, Azpeitia eta Azkoitian martxan jarritako EKE taldeetan aurten ez dute gure aholkularitarik behar izan eta gure zerbitzuak kontratatu dira Eskola kiroleko asteburuetako jardunaldietan Kirol egokitua lantzeko, udalerrri bakoitzean bina jardunaldi burutu ditugularik LH3-6 bitarteko ikasleekin.

Ikasturte honetan ere lortu da, beraz, eskualde gehienetan kirol egokitua praktikatu ahal izateko aukera gutxienera bat mantentzea, baina azpimarratu beharra daukagu, **DEBABARRENA eta UROLA-KOSTAN, EKE programa martxan jartzeko beharra nabarmena dela.**

ONDORIOAK

Ikasturteaz egiten dugun balorazioa oso positiboa da orokorrean:

- Oso pozik gaude eskualde bakoitzean lanean aritu den **monitore taldearekin**. Urtez urte EKE programa Gipuzkoa guztian egonkortzen dijoa eta monitore taldeak egonkortzea ere lortu dugula esan genezake.

Iaz monitore taldearekin ahulgunerik haundiena **Bidasoako** eskualdean izan bagenuen ere, bertako monitore taldeak aldaketa ugari izan zituelako, aurten egonkortasuna izan duela esan beharra daukagu baina **Urola Garaian, aldiz**, erabiltzaile- taldea bera nahiko konplexua izanik, eskualdean beraienezako aukerak oso murrizak nabari ditugu eta monitore- taldea Hezkuntzan ordezkapenak egiten murgilduta, bertako kirol-

teknikariekin bilera bat deitzea eskatu diogu

Aldundiari, beste planteamendu bat egiteko beharrean aurkitzen garelako.

- **Instalakuntza** aldetik ere pozik gaude orokorrean baina hurrengo ikasturtera begira zenbait aspektu izan beharko ditugu kontutan: eskaera berri nahikotxo jaso ditugu dagoeneko hurrengo ikasturteko EKE programarako eta igerilekuetan erabiltzaile berriak sartzeko zailtasunak izango ditugula aurreikusten dugu, beraz, lehentasunak zehaztu beharko dira, igerilekuetan kale edo ordu gehiago lortzea oso zaila bait da.
- EKE programa tokian tokiko eragileek kudeatzen dituzten eskualdeetan **aholkularitza** ordu asko eskaini ditugu aurten eta hurrengo ikasturtean hauen **jarraipena egiteaz gain** (Debagoiena, Debarrena, Urola Erdia, Urola Kosta Mendebaldea), Buruntzaldea eta Urola Kosta Ekialdean ere **aholkularitza beharra** aurreikusten dugu.